



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2017ko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- euskal familien konfiantza mantentzen da eta 2017a positiboan ixten da
- hobekuntza (apala) izan arren, Estatuko eta EBeko familiek negatiboan diraute
- Frantzia eta Erresuma Batua, konfiantza gelditua eta negatiboan; Alemania positiboan




1 euskal familien konfiantza mantentzen da eta 2017a positiboan ixten da

2017ko laugarren hiruhilekoan, euskal familien konfiantza-indizearen balioa ia errepikatu egin da (1), urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz (0,4) eta urtea positiboki itxiz.

Atxikitako grafikoa adierazten duen moduan, euskal familien konfiantza-adierazleak susperraldi profil jarraitu bat erakusten du oso negatiboak ziren balioetatik abiatuz.

Orotara, euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizearen batez besteko balioa 2017an positiboa da dagoeneko (1), azken urteetako balio negatiboai aurre eginez: 2014 (-19), 2015 (-6) eta 2016 (-5).




2 | hobekuntza (apala) izan arren, Estatuko eta EBeko familiek negatiboan diraute

2017ko laugarren hiruhilekoan, Estatuko eta EBko familien konfiantza-indizea geldotzen da.

Estatuko familien artean indizearen emaitza balio negatiboetara itzultzen da (-2) bi hiruhilekoetan positiboan egon ondoren; beraz, konfiantza-indizearen urteko balioaren batez bestekoa -1ean geratzen da, zertxobait pesimista, baina hobetuz beti ere 2016arekin alderatuz (-4).

Europako familiak ingurune neutral batean mantentzen dira, oraindik balorazio negatiboetara okertuta dauden arren (-1). 2017aren itxieran Europako familien konfiantza-indizearen batez besteko balioa negatiboa da (-3), 2016 urtearekiko hobetu bada ere (-6).



* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkio.


3 | Frantzia eta Erresuma Batua, konfiantza gelditua eta negatiboan; Alemania positiboan

2017ko laugarren hiruhilekoan Alemaniako familiek konfiantzaren susperraldi joera jarraitua mantentzen dute (5; ehuneko +1 puntu): 2017a positiboan ixten dute, eta 2016arekin alderatuz hobekuntza argiarekin (3, ehuneko +6 puntu).

Emaitza honen aurrean, Frantziako (-6; ehuneko +1 puntu), eta Erresuma Batuko (-5; ehuneko -1 puntu) familiek profil negatiboa mantentzen dute. Bi kasuetan, 2017ko batez besteko balioa negatiboan geratzen da (-6 eta -5), baina dinamika desberdin batekin: 2016ko batezbesteko balioekin alderatuz, Frantziako emaitzak nabarmenki hobetzen dira (ehuneko +8 puntu) Erresuma Batuarekin konparatuz, non okertu egiten diren (ehuneko -4 puntu).

Hortaz, Alemania, Frantzia eta EAEko familiek hobekuntza joera partekatzen dute, Erresuma Batuko familien aurrean, atzerapenekoa gainerako herrialdeekin alderatuz.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziatzko herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuaren eta Alemaniaren 2017ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie..

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- euskal familiak baikorrak dira ekonomia orokorrari dagokionez
- enplegu-berreskurapen igurikimena mantentzen da
- familia ekonomiaren gaineko konfiantza negatiboan dirau
- familien aurrezki-igurikimenen antzera
- eta euskal familien konfiantza balio positiboetan sendotzen da




4 euskal familiak baikorrak dira ekonomia orokorrari dagokionez

Euskal familiek igurikimen positiboak mantentzen dituzte ekonomia orokorraren egoerarekiko eta 2017ko laugarren hiruhilekoan hobetzen jarraituko duela uste dute, erregistratutako adierazlea (6) zertxobait baxuagoa bada ere aurreko bi hiruhilekoekin alderatuz (12 eta 9, hurrenez hurren).

Indizearen balioak familien balorazioa laburbiltzen du hurrengo hamabi hilabeteetarako: bi familietatik batek baino zertxobait gehiagok uste du ekonomia orokorrak berdin jarraituko duela (% 54; ehuneko +4 puntu), lautik batek uste du hobetzen jarraituko dela (% 26; ehuneko -2 puntu), eta bostetik batek bilakaera okerragoa izango dela (% 21; ehuneko -1 puntu).

Gauzak horrela, igurikimenean indizearen batez besteko balioa ekonomia orokorrarekiko 6koa da, hobekuntza profil nabarmen batekin 2014 (-21), 2015 (-4) eta 2016 (-7) urteekin alderatuz.




5 familia ekonomiaren gaineko konfiantza erregistro negatiboetan dirau

Adierazle guztietatik enpleguarekiko azaltzen dituzte euskal familiek igurikimenik hoberenak, honen sasoiari dagokionez datozen hamabi hilabeteetan. 2017ko laugarren hiruhilekoan, euskal familien enplegu-igurikimenean adierazleak positiboan dirau (9) hamaikagarren hiruhilabeteko jarraian eta arinki hobetu da aurrekoarekin alderatuz (ehuneko +2 puntu).

Euskal familien konfiantzaren hobekuntza enpleguaren bilakaerarekiko sendotu egiten da 2017ko urteko batezbestekoan (13, ehuneko +7 puntu), jada positiboak ziren 2016 eta 2015eko zifrak (6 eta 3) gaindituz eta 2014ko hautemate negatiboarengandik urrun (-18).

Azken finean, 2017an (batezbesteko balioa) euskal familiek enpleguaren inguruko igurikimen hobekuntza dituzte (13) ekonomia orokorraren kasuan baino (6), eta bi gertaeretan urtetik urterako hobekuntza nabarmena jasotzen dute, handiagoa bada ere ekonomia orokorraren kasuan (+13) enpleguarenean baino (+7).

Langabeziarekiko igurikimenak




6 familia ekonomiaren gaineko konfiantza negatiboan dirau

2017. urte amaieran, ekonomiaren egoeraren inguruko igurikimen-adierazlea oraindik negatiboan dirau (-4). Hala ere, azken zortzi hiruhileko balioen antzera dago, balio neutro edota positiboetara iritsi gabe oraindik.

Batez bestean, 2017an etxeko ekonomiaren igurikimenean adierazlea -5ekoa da eta balioa errepikatzen da 2016koarekiko (-5), hobetu bada ere 2015 (-7) eta 2014 (-15) urtekoekiko.

Azkenik, adierazi behar da etxeko ekonomiaren igurikimen-adierazlea eta aurrezkiari dagokiona direla seriearen hasieratik (2014tik) emaitza negatiboak ematen dituzten bi adierazle partzial bakarrak.




7 | familien aurrezki-igurikimenen antzera

Euskal familien aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimen-adierazleak pesimismo balioa mantentzen du (-8; ehuneko +1 puntu) baina 2014ko lehen hiruhilekotik hasita erregistrorik onena da, eta bigarren aldiz jarraian bi digitutik beherako zifra bat da.

Gauzak horrela, urteko batez bestekoan, 2017an adierazle hau -10ekoa da eta, negatiboa izaten jarraitzen badu ere, neurri txikiagoan da 2016 (-12), 2015 (-16) eta 2014 (-23) urteekin alderatuz.

Beraz, euskal familien aurrezki-igurikimenak pesimismoan diraute, baina neurri baxuagoan azken urteekin alderatuz. Eraitza hau euskal familiek etxeko ekonomiaren bilakaeraren inguruan (sarrerak eta gastuak) duten balorazio negatiboarekin (-5, 2017ko urteko batezbestekoa) lotuta dago, hoberanzko joera arin batekin beti ere.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 | eta euskal familien konfiantza balio positiboetan sendotzen da

Ikertutako esparru desberdinetan euskal familien igurikimenean emaitzen konbinazioak 2017ko laugarren hiruhilekoan familien konfiantza adierazlea balio positiboetan sendotzera (1) darama, hirugarren hiruhilekoaren erregistroa zerbait hobetuz (ehuneko +0,6 puntu).

Familien konfiantzak zifra positiboak ematen ditu hirugarren hiruhilekoz jarraian, enplegu-igurikimenean hobekuntzan (9; ehuneko +2 puntu) eta ekonomia orokorrean (6; ehuneko -3 puntu) oinarrituta. Aitzitik, etxeko ekonomiaren inguruko igurikimena (-4) eta etxeko aurrezkien igurikimena (-8) negatiboan mantentzen dira (oraindik) urtearen amaieran, bi kasuetan puntu batean hobetzen badira ere azken hiruhilekoarekiko.

2017ko zifrek (urteko batez bestekoa) euskal familien konfiantzan hobekuntza progresiboa adierazten dute, jadanik balio positiboetan murgiltzen direnak (1; ehuneko +4 puntu). Honen arrazoia da esandako lau adierazleetatik bik argi eta garbi balio positiboak diren zifrak adierazten dituztela, bereziki nabarmentzekoa enplegu-igurikimenean adierazlea (12; ehuneko +6 puntu), zeini ekonomia orokorraren inguruko igurikimena gehitzen zaion (6; ehuneko +13 puntu). Dena den, ez dira nahikoak negatiboa den etxeko ekonomiaren (-5) eta aurrezkiaren (-10) balantzea orekatzeko.


Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE

Indizea	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>IH-17</u>	<u>IIH-17</u>	<u>IIIH-17</u>	<u>IVH-17</u>
Familien konfiantza	-6	-5	1	-3	5	0,4	1
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	-3	12	9	6
Etxeko ekonomia	-9	-5	-5	-8	-3	-5	-4
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	10	23	7	9
Aurrezteko gaitasuna	-16	-12	-10	-12	-12	-9	-8



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- euskal familiek prezioen hazkunderan gorakada aurreikusten dute
- erosketa unearen balorazioa hobetzen da, oraindik negatiboan
- zuhurtzia “erosketa handien” indarberritzean
- (oraindik) ahula den etxebizitza eta auto erosketa asmo bati batuta
- oso pixkanaka kontsumoaren inguruko pertzepzioa ezkortasun gutxiagoko baterantz doa




9 | euskal familiek prezioen hazkunderan gorakada aurreikusten dute

Bi familietatik batek datorren urtean zehar azken hamabi hilabeteetan gertatu den antzera prezioak igoko direla uste du (% 51), pasa den hiruhilekoarekiko 6 puntutan murriztu egin den batez bestekoa. Aitzitik, gehiago dira hurrengo urtean prezioak azkarrago haziko direla uste duten familiak, lautik bat izatetik hirutik bat izatera pasatuz, hirugarren hiruhilekotik laugarrenera.

Beraz, prezioen bilakaeraren igurikimenean adierazlea hurrengo 12 hilabeteetarako negatiboan mantentzen da eta areagotu egiten da hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz (-17; ehuneko -12 puntu), urteko lehen bi hiruhilabeteko datuen azpitik mantentzen bada ere (-18 eta -29, bigarren eta lehenengo hiruhilekoan).

Gauzak horrela, urtea bere osotasunean hartuta prezioen bilakaera indizea negatiboa da (-17), bi urtetan zehar balio positiboak eman ondoren (5 eta 13, 2015 eta 2016an), beraz argi geratzen da familiek aurreikusten ari direla prezioen hazkunderaren erritmoan gorakada bat.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan? (pertsoneen %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


10 | erosketa uneko balorazioa hobetzen da, oraindik negatiboan

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak..)?

Erosketa-unea etxebizitzaren gastu-gaitasunari buruz hausnartzeko galdera da (zer behar dut, zein eskaintza daude gaur, zer eros dezaket, etab.): 2017ko laugarren hiruhilabetean, ia bost familietatik batek uste du momentu egokia (% 19) edo desegokia (% 22) dela erosteko, eta familien ia bi herenei (% 60) berdin zaie.

Era bateratuan, erosketa-unearen balorazio-adierazlea negatiboa da (-2), baino hobetu da urteko hirugarren hiruhilekoan lortutako emaitzarekin (-8) alderatuz.

Erosteko unearen balorazioa¹
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11 | zuhurtzia “erosketa handien” indarberritzean

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Hirugarren hiruhilekoan familiek nolabaiteko baikortasuna adierazi dute mota honetako erosketen igurikimenean, eta urtea herritarren aldetik euste handiagoarekin ixten da. Zehazki, familiako erosketa handien igurikimen adierazlea uzkuritu egiten da urteko laugarren hiruhilekoan (-7). Datu hau hurrengo urtean zehar euren erosketak murriztuko direla dioten familien multzoaren gorakadaren ondorio da (23, ehuneko +6 puntu), igoko direla dioten familien beherakadarekin batera (10, ehuneko -5 puntu).

2017an erosketa handien igurikimen-adierazlea balio negatiboetan mantentzen da (-7), beti ere 2015 (-12) eta 2016 (-10) urteetan baino neurri murriztugan.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12 (oraindik) ahula den etxebizitza eta auto erosketa asmo bati batuta

Euskal familien % 1,9k adierazi du etxebizitza bat erosteko nolabaiteko asmoa duela datorren urtean zehar, urteko hirugarren hiruhilabetekoarekiko ehuneko -1,2 puntu murrizten den ratioa. Hala eta guztiz ere, etxebizitza erosteko asmoa 2017an zehar (urteko batez bestekoa) % 3ra iristen da, puntu bat baino gehiagoan hobetuz 2015 eta 2016ko zifrak (% 1,8, bi kasuetan).

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonen %-a)



Modu antzekoan, hurrengo 12 hilabeteetan autoa erosteko asmoa murriztu egingen da ehuneko -3 puntu baino gehiagoan azken hiruhilekoan. Hala ere, eta urtearen osotasunean, auto bat erosteko igurikimenak haziko lirateke zertxobait 2016arekin alderatuz eta % 5,5ean kokatzen dira 2017an.

Autoa erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonen %-a)



13 oso gutxinaka kontsumoaren inguruko pertzepzioa ezkortasun gutxiagoko baterantz doa

2017ko azken hiruhilabetekoan prezioekin eta euskal familien erosketa eta inbertsio erabakien zerikusia duten indize erlazionatuen balantze bateratuak familien konfiantzaren susperraldia erakusten du. Horrela, ikusi daiteke:

- Prezioen gorakada. Euskal familien igurikimenak berreskuratu du inflazioaren hazkundearen gorakada (-17), hirugarren hiruhilekoan bere horretan mantendu zena. Bestela esanda, 2017ak ikuspegi inflazionistagoa erakusten du 2015 eta 2016 urteekin alderatuz.
- Erosketa unearakiko hobekuntza. Erosketa unearakiko balorazioa negatiboa izaten jarraitzen du, bai laugarren hiruhilekoan (-2) eta baita urtearen osotasunean ere (-3), baino hobetu du eta (oraindik) negatiboa izan arren, 2015 eta 2016 urtetako zifretatik urruntzen da.
- Erosketa igurikimenaren beherakada. Erosketa egitearen igurikimena (-7) erori egin da urtearen amaieran bigarren hiruhilekoko mailara iritsi arte (-7). Hala ere, urteak bere osotasunean adierazle baikorragoa erakusten du (-7) beti ere 2016 (-10) eta 2015 (-12) urteekin alderatuz.


Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>I H-17</u>	<u>II H-17</u>	<u>III H-17</u>	<u>IV H-17</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	13	-17	-29	-18	-6	-17	-12	▼
Erosteo unearen balorazioa	-19	-8	-3	0	-3	-5	-2	2	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-7	-12	-8	-2	-7	-5	▼

¹ 2014, CCaren neurriaren hasiera

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea
euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera
beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>I H-17</u>	<u>II H-17</u>	<u>III H-17</u>	<u>IV H-17</u>
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea						
• EAE	-5	1	-3	5	0,4	1
• Estatua*	-4	-1	-3	2	0	-2
• EB*	-6	-3	-5	-3	-2	-1
○ Frantzia*	-14	-6	-9	-5	-5	-6
○ Alemania*	-3	3	-1	4	4	5
○ Erresuma Batua*	-2	-6	-5	-6	-6	-5
Osagaiak: familien konfiantza. EAE						
• Ekonomia orokorra	-7	6	-3	12	9	6
• Etxeko ekonomia	-5	-5	-8	-3	-5	-4
• Langabezia	6	12	10	23	7	9
• Aurrezkia	-12	-10	-12	-12	-9	-8
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE						
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	13	-17	-29	-18	-6	-17
• Erosteke unearen balioztapena	-8	-2	0	-3	-5	-2
• Erosketak egiteko igurikimena	-10	-7	-12	-8	-2	-7
Erosketa handiak. EAE.**						
• Etxebizitza	1,8	3,0	3,0	2,2	1,3	1,5
• Autoa	5,2	5,5	5,0	4,9	4,8	3,3

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III. hiruhileko datuak uztaila-abuztuko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2016	2017	I H-17	II H-17	III H-17	IV H-17	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-5	1	-3	5	0,4	1,0	▶
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-3	5	2	9	6	3	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-1	2	-1	5	1	2	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	0	-6	4	-1	2	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-12	-5	-11	2	-7	-5	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	1	6	2	9	6	5	▶
• Langabea	-18	-7	-9	-1	-11	-5	▲
• Ez-aktiboa (erretiratu, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-9	-4	-9	2	-6	-3	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-21	-14	-18	-8	-14	-14	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-4	2	0	4	0	3	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	7	15	12	20	16	10	▼

⇔ (± 2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 16	I H – 17	II H – 17	III H – 17	IV H – 17p	(azkena)
BPG	3,0	2,8	2,9	3,0	--	III hir.
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,0	3,0	--	III hir.
Afiliazioa	1,8	-0,4	1,3	-0,6	1,5	azaroa
Erregistratutako langabezia	-3,2	0,3	-2,6	-2,3	-2,2	azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,2	1,0	1,5	1,4	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-7,1	31,5	-0,7	-10,6	--	III hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	12,0	-7,0	10,8	-12,7	21,6	azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo biko) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA - METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Azaroaren 6tik 18ra (2017ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm